



2011ko lehen hiruhilekotik bigarrengora, EAEko etxebizitza erabilien metro koadro erabilgarriaren eskaintza-prezioa % 0,4 jaitsi da, eta berriena, % 0,1.

Higiezinen agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,8 hilabetekoa da.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako 2011ko bigarren hiruhilekoko eskaintza inmobiliarioaren estatistikaren arabera, erabilitako etxebizitza baten metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa 3.864 eurokoa da, zertxobait jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, % -0,4, eta iazko hiruhileko berarekiko, % -0,2. Bestetik, etxebizitza libre berria ia berdin mantentzen da aurreko hiruhilekoarekiko, % -0,1, 3.828 eurokoa baita, eta % 3,6 jaitsi da iazkoa hiruhileko berarekin alderatuta.

Araban agentziek saltzeko eskainitako erabilitako etxebizitzaren metro koadroaren prezioa % 0,9 jaitsi da, azken hiruhilekoan, eta 2010eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, % 6,5. Gipuzkoan % 1,6 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 3,8 2010eko bigarren hiruhilekoarekiko. Bizkaian, % 0,3 jaitsi da 2011ko lehen hiruhilekoarekiko, baina azken 12 hilabeteak hartuz gero, igo egin da, guztira, % 2.

Donostian erabilitako etxebizitzaren metroko koadroko prezioak ia bere horretan jarraitzen du, % 0,1 jaitsi da azken hiru hilabete hauetan. Bilbon eta Vitoria-Gasteizen ere jaitsi egin da, % 2 eta % 1, hurrenez hurren. Azken hamabi hilabeteotako bilakaera kontuan izanik, Donostian igo egin dira eskaintza-prezioak, (% 2,2), eta Vitoria-Gasteizen eta Bilbon aldiz, hazkundera negatiboa izan da, % 6,9 eta % 2,3 gutxiago, hurrenez hurren.

Bitartekari lanak egiten dituzten higiezinen agentziek esaten dute saltzaileek % 12,3 inguru jaitsi behar izaten dutela erabilitako etxebizitzaren prezioa, salmenta gauzatu ahal izateko. Horrek esan nahi du, azken hiru hilabeteetan 0,7 puntu jaitsi dela, eta aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 7,4.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa, 3.828 euroren bueltan baitabil, ia mantendu egin da hiruhilekoan, baina urtebeteko epean % 3,6ko jaitsiera metatua izan du.


Etxebizitza berri librearen metro koadroaren eskaintza-prezioa jaitsi egin da Gipuzkoan, bai aurreko hiruhilekoarekiko, %-0,7, bai ia azken hiruhilekoarekiko, % -7,8. Bizkaian, metro koadroaren prezioa % 0,2 igo da azken hiru hilabeteetan, baina % 2,9ko jaitsiera metatua izan du azken urtebetean. Arabari dagokionean, azken hiruhilekoan jaitsiera % 0,3koa izan da, baina 2010eko hiruhileko berarekin alderatuz gero, % 0,2 igo da.

Bilbon etxebizitza libre berriaren metro koadroaren prezioa % 4,1 jaitsi da azken hiruhilekoan.

Vitoria-Gasteizen etxebizitza librearen eskaintza-prezioak % 0,6 jaitsi dira, eta Donostian ere % 0,6. Azken hamabi hilabeteetan etxebizitza librearen metro koadroko eskaintza-prezioak % 8,9 egin du behera Bilbon, eta % 8,4 Donostian. Vitoria-Gasteizen ordea, gora egin dute, % 0,4.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza librearen prezioa 8.900 euro jaitsi dute azken hamabi hilabeteetan, hots, % 2,8.

Etxebizitzaren m² erabilgarriaren arabera batez besteko prezioaren bilakaera etxebizitza motaren arabera eta hiruhileko bakoitzeko. 1996-2011. Euskadiko AE.
Euroak.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Eskaintza immobiliarioari buruzko estatistika

EREDUZKO ETXEBIZITZA: Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

Sustatzaile eta higiezin agentziek etxebizitza libre berriei jarritako batez besteko eskaintza-prezioa 314.100 eurokoa izan da, 2011ko bigarren



hiruhilekoan, % 0,2 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 2,8 aurreko hamabi hilabeteekin alderatuz gero.

Bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa -335.900 eurokoa-, etxebizitza libre berria baino 21.800 euro gehiago, mantendu egin da azken hiruhilekoan, eta horrela, % 5,3ko igoera metatu du, azken 12 hilabeteetan; hau da, 17.000 euroko igoera.

Araban etxebizitza libre berrien eskaintza-prezioak ez dira aldatu, ez azken hiruhilekoan, ez azken urtean. Aitzitik, etxebizitza erabiliaren prezioa jaitsi egin da; batez beste % 0,2 azken hiru hileetan; eta % 5,6 azken urtean. Lurralde horretako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 290.800 eurokoa da, eta erabiliarena, 271.800 eurokoa.

Bizkaian bigarren hiruhilekoan 309.000 eurotan eskaini da etxebizitza librea. Aurreko hiruhilekoan erregistraturiko prezioa % 0,3 jaitsi egin da, eta 2010eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuz gero, jaitsiera % 2,1era iristen da. Erabilitakoen prezioa apenas aldatu da, % 0,1 gehiago, aurreko hiruhilekoarekin alderatuz; hau da, aurreko urtekoarekiko % 11,1eko igoera. Lurralde horretako etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa 335.600 euroren bueltan dabil.

Gipuzkoak, berriz, eutsi egin die etxebizitzaren prezio garestienei, eta etxebizitza libre berria 332.100 euro kostatzen da, eta bigarren eskukoak, 389.100 euro. Lehenengo etxebizitza motaren prezioa % 0,3 jaitsi da azken hiru hiruhilekotan, eta bigarrenarena, % 1,7. Azken hamabi hilabeteetan, etxebizitza libre berriaren prezioa % 6 jaitsi da, batez beste, eta bigarren eskukoarena, % 3,3.

Etxebizitza berri librearen eskaintza-prezioa 30.100 euro jaitsi zen Donostian, 23.900 Bilbon eta 2.500 Gasteizen azken hamabi hilabeteetan

Azken hamabi hilabeteetan higiezin agentziek eta sustatzaileek % 6,7 jaitsi dute Donostiako etxebizitza libre berriaren prezioa. Bilbon, % 5,6 jaitsi dute, eta Vitoria-Gasteizen, % 0,8.

Azken hiruhilekoarekin alderatuta, etxebizitza horien salmenta-prezioa % 4,6 jaitsi da Bilbon, % 1 Donostian eta Vitoria-Gasteizen. Batez besteko prezioa 417.100 eurokoa da Donostian, 402.800 eurokoa Bilbon, eta, baxuena, 306.100 eurokoa, Vitoria-Gasteizen.

Erabilitako etxebizitzari dagokionean, Vitoria-Gasteizen apenas jaitsi da prezioa, % 0,2 besterik ez. Bilbon jaitsiera % 1,9koa izan da. Eta Donostian, berriz, igo egin da, % 1,4. Hiriburu horretan 2010eko bigarren hiruhilekotik % 8ko igoera gertatu da -37.700 euro gehiago batez beste- eta % 3,7koa -14.200 euro gehiago- Bilbon. Alabaina, Vitoria-Gasteizen batez besteko prezioa % 5,9 jaitsi da, 17.200 euro, alegia.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Alokatzeko etxebizitza libreen batez besteko errenta 911 eurotan dago, eta babestutakoena -BOE eta etxebizitza sozialena-, 231 eurotan.

Etxebizitza librearen kasuan % 1,9ko jaitsiera da hori, iazko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 0,7ko jaitsiera aurreko hiruhilekoarekiko. Babestutako etxebizitzaren batez besteko alokairua % 6,9 jaitsi da azken hiruhilekoan, baina % 20,4 igo da azken urtean.

Babestutako etxebizitzak -BOEk eta etxebizitza sozialek-, merkatuan saltzeko eskainitako hamar etxebizitzatetik bat baino gehiago dira, % 16,2; batez beste 109.200 euroko prezioan –1.500 euro metro koadro erabilgarriko–. Etxebizitza horien metro koadroko batez besteko prezioak % 0,4 egin du gora azken bi hiruhilekotan, eta 2010eko hiruhileko berarekin alderatuta, % 2,0.

Higiezinen agentziek etxebizitza bat saltzeko behar duten batez besteko denbora 8,8 hilabetekoa da, duela urtebete baino hilabete erdi pasatxo gehiago.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

HIGIEZINEN ESKAINTZARI BURUZKO INKESTA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN		2011ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa		Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa	
ERABILGARRIAREN BATEZ BESTEKO PREZ		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/Etxeb. soziala	1.500		6,5	0,4	30,1	2,0
	Berri librea	3.828		-4,1	-0,1	-141,4	-3,6
	Erabilia	3.864		-16,2	-0,4	-6,2	-0,2
Araba	Berri librea	3.493		-10,4	-0,3	6,1	0,2
	Erabilia	3.308		-31,6	-0,9	-231,3	-6,5
Bizkaia	Berri librea	3.850		6,9	0,2	-113,8	-2,9
	Erabilia	3.729		-10,2	-0,3	72,5	2,0
Gipuzkoa	Berri librea	3.955		-29,2	-0,7	-335,1	-7,8
	Erabilia	4.561		-74,5	-1,6	-182,6	-3,8
Euskal Autonomia Erkidegoa	(1) EREDUZKO ETXEBIZITZA	3.475		0,0	0,0	56,5	1,7
Berria librea	Gasteiz	3.739		-21,0	-0,6	15,6	0,4
	Bilbo	4.957		-213,2	-4,1	-484,8	-8,9
	Donostia	4.701		-4,9	-0,1	-430,4	-8,4
Erabilia	Gasteiz	3.344		-35,5	-1,0	-247,6	-6,9
	Bilbo	4.154		-84,5	-2,0	-98,5	-2,3
	Donostia	5.659		-3,0	-0,1	123,1	2,2
ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO PREZIOA		Milaka Euro		Milaka Euro	Ald %	Milaka Euro	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE berria/ Etxeb. soziala	109,2		-0,7	-0,6	-3,5	-3,1
	Berria librea	314,1		-0,8	-0,2	-8,9	-2,8
	Erabilia	335,9		-0,2	0,0	17,0	5,3
Araba	Berria librea	290,8		0,1	0,0	-0,1	0,0
	Erabilia	271,8		-0,4	-0,2	-16,2	-5,6
Bizkaia	Berria librea	309,0		-0,9	-0,3	-6,7	-2,1
	Erabilia	335,6		0,3	0,1	33,4	11,1
Gipuzkoa	Berria librea	332,1		-1,1	-0,3	-21,2	-6,0
	Erabilia	389,1		-6,6	-1,7	-1,6	-0,4
ETXEBIZITZA ESKAINTZA		Unitateak	%	Unitateak	Ald %	Unitateak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	Gutuzkoa	36.966	100,0	4.449	13,7	8.470	29,7
	BOE berria/Etxeb. soziala	5.575	17,8	1.097	24,5	1.329	31,3
	Berria librea	4.911	19,4	222	4,7	110	2,3
	Erabilia	24.013	51,2	3.181	15,3	7.864	48,7
	Soziala/Librearen Alokairua	2.468	11,5	-52	-2,0	-833	-25,2
ALOKAIRU ETXEBIZITZEN BATEZ BESTEKO ERRENTA		Euroak		Euroak	Ald %	Euroak	Ald %
Euskal Autonomia Erkidegoa	BOE / Soziala	231,0		14,8	6,9	39,2	20,4
	Librea	911,1		-6,4	-0,7	-17,9	-1,9
ETXEBIZITZA BAT SALTZEKO BEHAR DIREN BATEZ BESTEKO HILABETEA		8,8		1,3	17,7	0,8	9,4
AZKEN PREZIOAREN MURRIZKETAREN BATEZ BESTEKO EHUNEOA.		%		Aldera portzentajeazko puntuatan	Ald %	Aldera portzentajeazko puntuatan	Ald %
Bizkaia Gipuzkoa	EAE	12,3		-0,7	-5,6	-7,4	-37,5
	Araba	4,3		-0,8	-16,4	-6,4	-59,7
		13,6		-0,9	-6,0	-0,8	-5,8
		12,6		-0,6	-4,9	-17,1	-57,6

(1) Etxebizitza berria, kolektiboa, sustapen librekoa, sustatzaileak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "arrunta" duena eta 60 eta 90 m² arteko azalera duena.

Ohar metodologikoa

2011ko bigarren hiruhilekoko datuak 176 higiezin-agentziak eta 5 etxebizitza baino gehiagoko sustapenak zituzten 156 sustatzailek osatutako lagin bati hiruhilekoaren amaieran egindako elkarrizketetatik atera dira. Nolanahi ere, ez dira salmenta-prezioak,



**ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA**
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

eskaintako prezioak baizik. Prezioak, eskaintza eta alokairuak kalkulatzeko, laugarren mailako batez besteko mugikorrak ateratzen dira, ausazko aldaketak gutxiagotzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEA: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.